



## Pil-pilean

Soraluzeko hilabetekaria  
2019ko azaroa · 358 alea

TOKIKOM

JATETXEA

TXURRUKA

LOTERIA SARIA  
TXURRUKARA





# PIL-PILEAN 358

2019ko azaroa

Azaleko argazkiaren egilea:

Fernan Oregi.

## Aurkibidea

- 4 **Bote prontuan** Naiara Martin
  - 6 **Begira** 80 urtetik gorakoen bazkaria
  - 8 **Zer berri** Aktualitateko albisteak
  - 14 **Argazki bidez** Gaztañerre
  - 18 **Erreportajea** Loteria Txurrukan
  - 24 **Kirola** Hockey taldea eta Paula Rascon
  - 26 **Kultura** Blues jaialdia
  - 28 **Sakonean** Plaentxi Eskola aitzindari
  - 30 **Zerbitzuak** Zorion-agurrak, oroitzak, iragarki laburrak...
- IRITZIA
  - 3 **Neuretik** Oihana Garitano, Alaine Arruabarrena eta Leticia Alvarez *Eskola berritzeko auzolana*
  - 16 **Gutunak** Maribel Lopez *Bertako hizkuntza ikasteko zailtasunak*
  - 16 **Hausnarketa** Loteriarekin pozik?
  - 17 **Zir(r)ika** P.G. *Eurotea*
  - 17 **Puntua** Sara Peñalba *Eskola txiki baten onurak*



**Pil-pilean herri komunikabidea**

**TOKIKOM**

### Argitaratzailea

Pil-pilean Euskaltzaleen Topagunea  
Errabal kalea 15-1, PK 27  
20590 Soraluze

### Erredakzioa

Ubane Madera  
ubane@pilpilean.eus  
Egoitz Unamuno  
egoitz@pilpilean.eus  
605 706 086

### Publizitatea

publizitatea@pilpilean.eus

### Zuzentzailea

Miren Gallastegi

### Diseinua

Goiena  
Oier Larreategi (moldaketak)

### Maketazioa

Oier Larreategi

### Inprimategia:

Gertu Koop.

### Banaketa:

Pil-pilean Ekoizpena

### Lege Gordailua:

SS-537-2000

### Tirada:

2.100 ale

### Babesleak

**GOKI**  
erreformak

 **SORALUCE**



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA**

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak  
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



**SORALUZEKO  
UDALA**

# Eskola berritzeko auzolana

OIHANA GARITANO, ALAINE ARRUABARRENA ETA LETICIA ALVAREZ

**J**asoko zenuen whatsappez Soraluze Auzolanean taldearen partaide izateko gonbidapena. Zer da? Hiru guraso gara: Leticia, Alaine eta Oihana. Gure eskolaren egoera ikusita, maiatzean, EZINA EKINEZ EGINA taldea osatu genuen eskolan eremu duin bat lortzeko asmoz.

Aurreko urteetako eskarien erantzuna, ezin da egin ez dagoelako dirurik, ezin da egin obra handiegia delako... izan da. Guk planteamendua aldatu dugu, zer ezin den egin aztertu beharrean, zer egin daitekeen planteatzen dugu. Zuzendaritzaren laguntzaz, hainbat beharren gaineko eskaera egin genuen udalean.

Puntu gehienak Udalak hartu ditu bere gain, batzuk udan egin ditu, (gela batzuk margotu, txapazko eskailerak berritu...). Beste batzuk 2020an egingo dira. Udalak diru-partida garrantzitsua bideratuko du.

Baina eskolak urtarrilerako eskatutako lanetako batzuk Udalak ezin ditu bere gain hartu. Hori guztia ondo aztertu ondoren, auzolanean, denon artean, egiteko aukera ikusi dugu, gure herriak parte hartuko duela sinetsita. Hiru helburu finkatu ditugu:

**Gure umeen beharrei erantzuna ematea.** Umeez ordu asko pasatzen dituzte eskolan eta bertan ahal den erosoan egon daitezen nahi dugu. Baina eraikinak urte asko ditu. Jolaslekua eta barruko gelen egoera aztertu ditugu guk. Jolaslekua eraberritzeko 2020an proiektua kontratatzea planteatu da. Barruko ikasgeletan, berriz, argitasun gabezia dago.

**Gurasoak eta eskola gerturatzea.** Gaur egungo bizimodua dela eta, guraso asko ez gara eskolara joaten. Umeez ez dute eskolaren eta familiaren artean loturarik ikusten. Auzolana aukera polita da eskola garrantzitsua iruditzen zaigula erakusteko.

**Eskola gure sentitzea.** Eskola gure sentitzen badugu, gehiago zainduko dugu. Umeez ere gehiago zainduko dute norbere gurasoek margotu edo garbitu duten gunea.

Animatu eta etorri gurekin eskola berritzera. Abenduaren 4an, 19:00etan, bilera egingo dugu Elkartegian, gure proiektu zehatza erakusteko. Bakoitzak zer lan egin dezakeen ikusiz.

**ESKOLA GURE SENTITZEN BADUGU GEHIAGO ZAINDUKO DUGU, BAITA GURE UMEEK ERE**

# “Aldundiak ematen duen dirua ez da nahikoa”

---

**NAIARA MARTIN** EGOITZAKO LANGILEA ETA ELA-KO DELEGATUA  
TESTUA: EGOITZ UNAMUNO. ARGAZKIA: FERNAN OREGI.

---

Naiara Martin (Soraluze, 1983) Mesedeetako Amaren Egoitzako langilea da eta ELA sindikatuko delegatua duela bost urtetik. Iazko irailean, Gipuzkoako egoitzetako langileek mobilizazioak hasi zituzten Gipuzkoako eta enpresetako lan-hitzarmenak berritzeko helburuz eta ordutik buru belarri dihardu mobilizazioak antolatzeko lanetan. Azaroaren 11tik greban daude eta aldaketarik gertatu ezean, greban jarraituko dute abenduaren 11ra arte.

**Zein dira greba egiteko arrazoi nagusiak?** 2016tik soldatak izoztuta ditugu, enpresako lan-hitzarmena sinatu barik dagoelako. Gipuzkoakoa, berriz, 2011tik dago sinatu barik. Guk eskatzen duguna da bi lan-hitzarmenak eguneratzea: soldatak eguneratzea, diposizio libreko bi egun gehiago izatea, asteburu eta gauetako plusak handitzea, aintzinasuna kontuan hartzea eta egoiliar bakoitzari, gutxienez, bi ordu eskaintzeko aukera emango diguten ratioak ezartzea. Kalkulatu zenbat denbora behar den pertsona bat dutxatzeko, gosaltzeko, oheratzeko... Eta kontuan hartuta aitita-amama bakoitzarekin egoteko denbora ez dela bi ordura heltzen. Atera kontuak zenbat denbora egiten dugun aitita-amama bakoitzarekin.

**Egoera zelakoa da Mesedeetako Egoitzan?** Egia da, ratioei dagokienez, gure egoitzan nahiko hurbil egon gaitezkeela eskatzen denetik, baina ez gara bi ordura heltzen eta beharrezkoa da. Zuzendariak ratoria heltzen garelako dio, baina langileok uste dugu ezetz. Egia da, urte batzuetan jende gehiago kontratatu izan denean, lasaiago ibili izan garelako, baina kontratazioak jeisten direnean, berriz ere egoera berera bueltatzen gara.

**Mesedeetako Egoitzaren egitura berezia da.** Bai. Gipuzkoako egoitzetako plazarik gehien-gehienak kontzertatuak dira eta Soraluzekoak ere bai, baina gurean egoitzaren jabea irabazi asmorik gabekoa patronatu bat da, ez enpresa bat beste egoitza

gehienetan bezala. Patronatu horretan daude alkatea, alderdi bakoitzeko zinegotzia, abadea, bi senide eta izendatutako zuzendaria. Langileak ere joaten gara baina ez dugu botorik.

**Zure ustez zein da konponbidearen gakoa?**

Dirua ipini behar duena Gipuzkoako Aldundia da. Gizarte Politikako Diputatuak gatazkaren ardura berea ez dela dio, baina bada, diru iturri nagusia berak kudeatzen du eta. Arazoa da Aldundiak ematen duen dirua ez dela nahikoa eta horregatik eskatzen diogu diru gehiago jar dezan, enpresek ratioak handitzeko aukera izan dezaten.

**Urtebete da mobilizatzen hasi zinetela.** Bai, lehen mobilizazioa iazko irailean egin genuen; hiru eguneko greba. Urrian astebetekoa izan zen, azaroan luzeagoa eta horrela. Lanuzteak izaten dira, gurean oso zaila da greba indefinituak egitea gutxieneko zerbitzuak oso altuak direlako. Ez da fabrika bezala. Fabrika makinak gelditu egiten dira eta horrek enpresari min egiten dio. Gurean ez. Etxean gelditzen denak dirua galtzen du eta lanera doanak osasuna, erritmoa oso altua izaten delako. Azken batean, greba jasaten dutenak egoiliarrek dira, eta ez zuzendaritza.

**Egoiliarrek zer diote?** Haserre daude, eurak direlako greba jasaten dutenak: astebetean dutxatu barik, gosari ezberdina, ohetik beranduago jaiki... Eta beste gauza asko. Eurentzat bezala, guretzat ere oso gogorra da, baina ez dugu beste erremediorik. Senideak oraintxe hasi dira mugitzen. Irailean elkarte bat sortu zuten, Gipuzkoako Senideak izenekoa eta gure mobilizazioetan parte hartzen hasi dira, eta baita euren mobilizazio propioak egiten ere. Senideek dirua ordaintzen dute eta nahi dutena da aitita-amamak behar bezala zaintzea.

**Zela ikusten duzu etorkizuna?** Momentu honetan negoziazioa geldi dago, gure aukera bakarra kalera ateratzea eta gure mezua herritarren artean ahalik eta gehien zabaltzea da. Gizarteak jakin behar du egoera zein den eta presioa egin egoitzetako baldintzak hobetzeko.



## 80 urtetik gorako omenduak

**ARGAZKIA:** FERNAN OREGI

**TESTUA:** UBANE MADERA

Carmelo Mendizabalek 91 urte ditu eta Lucia Etxabek 92 (abenduan beteko ditu 93). Azaroaren 16an elkarrekin bazkaldu zuten Itxaropena elkartearen, 80 urtetik gorakoei eskainitako topaketa-omenaldian. Aipatzekoa da, guztira ia 100 lagun batu zirela bazkaritara. Izan ere, azaroko datuen arabera, Sorluzen 80 urtetik gorako 284 herritar bizi dira: 188 emakumezko eta 96 gizonezko. Bejondeizuela guztioi eta urte askotarako!







Aranzadiko langileak eta boluntarioak Sabuan, bukatu berri dituzten indusketetan. ARANZADI



Agerreburuko aizkora. ARANZADI

# Indusketa oparoak

Dolmenen Ibilbideko indusketetan ontzi zeramikoen aztarnak, giza hezurak eta leundutako aizkora eder bat aurkitu dituzte; Jesus Tapiak arkeologoak oso modu positiboan baloratu du aurtengo jarduna

Maiatzean hasi eta azaroan bukatu dituzte Dolmenen Ibilbidean aurtur egitea aurreikusita zizuten indusketak. Agerreburun, Irukurutzetan, Frantsesbason eta Sabuan ibili dira lanean Aranzadi Zientzia Elkarteko adituak, inguruko boluntarioen laguntzaz. Jesus Tapiak, indusketen arduradunak, aurkikuntza ugari egin dituztela kontatu du, batez ere, Agerreburun.

## Leundutako aizkora

Horietatik bat berezia da: leundutako aizkora. Kristo Aurreko 4.000 eta 2.000 urte artekoa dela uste du Tapiak: "Ez da arraroa halakoa aurkitzea,

baina ohikoa ere ez. Oso kalitate onekoa da, nahiko handia, ez dago urratuta eta ez dago puskatuta, oso pieza polita da. Agerreburun beste bat ezagutzen zen, txikiagoa, baina tumulutik kanpo. Oraingoa barrenean aurkitu dugu. Uste dugu bertako harriren batekin egindakoa dela, baina orain azterketa fasean dago".

Aizkoraz aparte, historiaurreko ontzi zeramikoen pusketak eta giza hezurak ere aurkitu dituzte, horiek ere batik bat Agerreburun.

Hala, aurtengo jardunaren balorazio orokor positiboa egin du Tapiak: "Emaizta oso onak

lortu ditugu, batez ere Agerreburun, berau izan da izarra. Ez bakarrik aurkitutako materialarengatik, dolmenaren pieza guztiak aurkitu baititugu. Eta ikusi dugu badagoela zaharberritzeko aukera. Harlauza guztiak aurkitu ditugu eta muntatzeko moduan daude, baita tapa ere. Orain, Diputazioko zaharberritzaileari egingo diogu kontsulta".

Hain justu, aurtengo jardunak emandakoa analizatzen dihardute Aranzadiko laborategietan, eta halaber, erakundeei aurkezteko txostenak prestatzen. Hortik aurrera, guztien artean zehaztuko dituzte lehentasunak. "Megalito asko erreparatu gabe gelditzen dira (...) Datorren urterako egingo ditugu proposamen batzuk eta ikusiko da. Niri gustatuko litzaidake", esan du Aranzadiko adituak.

**AGERREBURU IZAN DA AURTEN IZARRA, DOLMENAREN PIEZA GUZTIAK AURKITU DITUZTE**



# SOS deia Osintxuko eskolatik

Osintxuko Ponportola guraso taldeak eta Herri Batzarrak dei egin diete inguruko herrietako gurasoei umeak eskola txikira eroan ditzaten.

Osintxuko eskola txikiaren etorkizuna kinka larrian dago 2019-2020 ikasturterako ume falta dutelako. Ponportola guraso taldea eta Osintxuko Herri Batzarra eskolaren proiektua ezagutzera ematen ari dira, inguruko herrietako gurasoak umeak bertan eskolaratzera gonbidatzeko, tartean, Soraluzekoak.

Hain justu, azken urteotan Soraluzeko guraso batzuk Osintxuko eskolara eroan dituzte euren seme-alabak.




Gurasoak eta umeak Osintxuko eskolan.

## Ispiluak, puntu beltzak argitzeko

Ispiluak ipini dituzte Calongeko eta Atxuriko tuneletan, Mapa Morearen arabera, puntu ilunak baitira bi horiek.

Lau ispilu ipini dituzte Calongeko eta Atxuriko tuneletan. Horretarako, 1.190 euroko inbertsioa egin du Udaleko Parekidetasun Batzordeak. Izan ere, batzorde horretan erabaki zuten ispiluak ipintzea, Mapa Morean ondorioztatutakoaren arabera, aipatutako tunelak puntu ilunak baitziren. Bi tunel hauek, ispiluez gain, ohikoa baino argiztapen handiagoa dute, arrazoi berberarengatik.



Ispilua Atxuriko tunelean.

## Esperientzia Gela hasi da

Azaroaren amaieran abiarazi du ikasturte berria Esperientzia Gelak. Viviendo en positivo izenburua duen tailerra landuko dute datorren hilean, lau saiotan: abenduaren 3an, 4an, 17an eta 18an.

Hurrenez hurren, honako gaiak landuko dituzte: harremanak hobetzeko hizkera; inteligentzia emozionala; barrearen eta dibertsioaren tailerra eta norbera ahalduzko eta motibatuzko jarduerak.

Saioak arratsalde izango dira, 17:30etik 19:00ak arte, Itxaropena elkartean. Izena emateko epea zabalik dago abenduaren 2ra arte. Hori bai, asko jota 25 lagunendako lekua izango da eta partaideak izen-emate ordenaren arabera onartuko dituzte.

Hala ere, tailerrak interes handia sortu duela ikusten badute, antolatzaileek berau errepikatuzko aukera aztertuko dute.

## Gaztañerre azoka baloratzeko deia





Datorren abenduaren 10ean, martitzena, Udalak batzarra deitu du aurtengo Gaztañerre azokaren gaineko balorazioa egiteko. Urtero egiten dute balorazio batzarra azokako partaideekin zer hobetu edo zer aldatu behar den errepasatzeko. Bilera, 19:00etan, Udaletxeko osoko bilkuren aretoan izango da.



# GIPUZ

## Etorkizuna orain

Gipuzkoa etorkizuna da.  
Iritsi den etorkizuna.



GIPUZKOA  
ETORKIZUNA  
ORAIN



laz, lehen Euskaraldia aurkezteko ekitaldia.

# Abenduaren 3an ekitaldia plazan

Martitzenean, 2020ko Euskaraldia aurkezteko ekitaldia egingo dute Plaza Zaharrean, A Tuti Plainek girotuta.

365 Taldeak ekitaldi “bizi eta parte hartzailea” antolatu du Euskararen Egunerako. Ekitaldia 19:00etan hasiko da eta hasteko, lehenengo edizioan parte hartu zuten herritar batzuek ariketak euren hizkuntza ohituretan izan duen eraginaren berri emango dute eta ostean, bigarren edizioaren "nobedadeak" aurkeztuko dituzte. Jarraian, manifestu bat irakurriko dute, Euskaltzaleen Topaguneko lehendakari den Kike Amonarrizek idatzitakoa, Euskal Herriko euskaltzale guztiei zuzendua.

Bertaratzen direnek parte hartzeko aukera ere izango dute hizkuntza ohituretan izan dituzten lorpen eta desioak txarteltxoetan idatziz eta sare baten zintzilikatuz. Azkenik, talde argazki aterako dute eta

gaztaina erreak banatuko dituzte.

Gainera, martitzeneko ekitaldiak osagai musikal berezi bat ere izango du: A Tuti Plain. Izan ere, ekitaldian zehar rock talde soralezetarrak bere hiru kantu joko ditu.

## II. Euskaraldia

2020ko azaroaren 20tik abenduaren 4ra egingo da eta berritasun nagusi bat izango du: taldekako ariketak. Banakako harreman pertsonaletan ezezik, talde eremuetan ere ariketa egiteko aukera eskainiko du: elkarteetan, enpresetan, administrazioan...

## Egunean Behin taldea Soraluzen

Egunean Behin joko ezagunaren erabiltzaile batzuek Soralezeko Egunean Behin taldea sortu dute. Herriko taldean parte hartzeko nahikoa da taldearen kodea sartzea: 6F8C8C.

Euskarazko joko digitalak 39.000 erabiltzaile baino gehiago ditu dagoeneko eta kopurua gorantz doa.



Egunean Behin joakoaren irudia.

## Azitain-Maltzaga bidegorria

Dagoeneko hasi dituzte Eibar, Maltzaga eta Elgoibar lotuko dituen bidegorria eraikitze lanak. Lanek 5,1 milioi euroko aurrekontua izango dute eta Aurreikusitakoaren arabera, bidegorria urtebetean amaituko dute. Bere garaian, bidegorria Soraluzerekin lotzeko aurreproiektua enkargatu zuen Aldundiak, baina oraingoz ez da eraikitzeke erperi ezarri.



Argazkikoa moduko izotz pista ekarriko dute Gabonetarako.

# Izotz pista ekarriko du Bizikalek

Abenduaren 20an zabalduko dute Gabonetarako ekarriko duten izotz pista; eta abenduaren 12an izango da, berriz, Gabonetako argi piztea

Bizikalek, Sorluzeko Merkatarien Elkartek, barrakak barik, izotz pista ekarriko du Gabonetarako. Abenduaren 20tik urtarrilaren 6ra bitartean ipiniko du, 11:00etatik 14:00ak arte, eta 17:00etatik 21:00ak arte, Plaza Zaharreko karpapean.

Pista izango da 21 metro luze eta 10 metro zabal. Etxolatxoa ere ipiniko dute, oinetakoak eta abarrekoak gordetzeko, baita jantzeko txokoa ere; eta bi begirale izango dira uneoro, azalpenak eman eta laguntzeko.

Sarrerei dagokienez, 20 minutuz ibiltzea 3 euro kostako da.

Bestalde, izotzetan patinatzen ikasteko ikastaroa eskainiko diete LHko eta DBHko ikasleei. 20 euroko prezioan, hiru egunez, ordu beteko eskolak emango ditu Marras Irristaketa Taldeko Iraitz Ibarzabalek.

Bizikaleko presidente Ainhoa Ibarzabalen esanetan, "ahalegin handia" egingo du elkarteak pista ekartzeko. 12.000 bat euro kostatuko zaie alokairua, eta orain arte ez dira ausartu ekartzen prezioa dela eta. "Aurten, horren aldeko apustua egin dugu, barraken ondoan, izotz pistak adin tarte zabalagoko jendeari bertan ibiltzeko aukera ematen diolako; ea bada, jendea animatzen den".

**Argi gehiago ekarriko dituzte** Bestalde, Bizikalek, aurten ere, erdiguneko kaleak Gabonetako argiekin apainduko ditu. Argiak pizteko ekitaldia abenduaren 12an izango da. 19:00etan kontzejupean elkartu, txokolate beroa banatuko eta 19:30ean piztuko dituzte. Iazkoekin batera, aurten Plaza Zaharreko zuhaitzak apaintzekoak ere ekarriko dituzte.

## Hiru langile behar ditu Udalak

Sorluzeko Udalak hiru lanpostu eskaini berri ditu: ingurumen teknikaria eta bi peoi. Lehenengoa, sei hilabeterako lan eskaintza da, lananldi partzialean. Izena emateko epea zabalik dago abenduaren 11ra arte, Lanbidek Elgoibarren duen bulegoan.

Horrez gain, Udalak bi peoi kontratatu nahi ditu. Kasu honetan, hiru hilabeterako lan eskaintza da eta izena emateko epea abenduaren 12ra arte dago zabalik, hau ere, Lanbideren Elgoibarko bulegoan.

Hiru lanpostu hauek Lanbidek emandako dirulaguntzen bitartez finantzatu dira.

## Udal aurrekontua aztergai abenduan

Abenduaren 19an udalbatzak osoko bilkura egingo du. Mahai gainean izango dituen gaien artean, 2020ko aurrekontu proposamena aztergai izango dute alderdi politikoeak.

Astelehen honetan, azaroaren 25ean, EAJ eta PSE-EEren arteko Udal Gobernuak proposamena aurkeztu berri dio EH Bilduri, oposizioari, Ogasun Batzordean: 4.717.000 euro. Kopuru hori aurtengo aurrekontua baino %1,8 handiagoa da, gutxi gorabehera. Iaz, berriz, %9,37 txikiagoa izan zen aurreko urtekoarekiko. Hala, bada, igoera proposatzen du Udal Gobernuak, besteak beste, inbertsio berriak egiteko.

# Datorren urtean gehiago

**TESTUA:** UBANE MADERA

**ARGAZKIAK:** FERNAN OREGI ETA UBANE MADERA

Hogeita laugarren urtez, Erregetxea herriko eskulangileen erakusleiho bilakatu zen Gaztañerre azokaren bitartez. Artisauek eta baserritarrek alderik alde bete zuten lagatako lekua, dotore jantzitako postuekin, azken asteetako eta hilabeteetako lana eskaintzen. Horien artean, sarituak izan ziren Lesarriko Maritere, Arizagako Ezozki eta Arteagako Roke. Omenduak, berriz, Lander Lakuesta eta Tere Ariznabarreta izan ziren. Abuztuan zendu zen Mertxe Balzola ere gogoan izan zuten. Bestalde, herritarrek bozkatuta, Agarrebegiztegiko sagardoa izan zen txapeldun. Karpan, berriz, bazkaria eta dantzaldia izan ziren. Datorren urtean gehiago.





## GUTUNAK

### Bertako hizkuntza ikasteko zailtasunak

**MARIBEL LOPEZ**

HERRITARRA

Harrituta eta benetan haserre nago euskara ikasteko bertakook ditugun aukerengatik, edo hobeto esanda, aukera ezarengatik. Irailean Euskaltegira joan nintzen matrikulatzera, nire euskara hobetzeko eta neure burua alfabetatzeko helburuarekin. Eta nire harridurarako, 500 euro ordaindu behar nituela jakinarazi zidaten. Nire etxeko diru-sarrerak kontuan hartuta omen dagokit kopuru hori ordaintzea.

Gehiago harritu nintzen orduan, eta baita haserretu ere. Nik beti pentsatu izan dut euskara ikasteko mota guztietako laguntzak daudela,

eta pentsatu izan dut doakoa dela aukera hori. Alde guztietan ez dute esaten guztiok euskara ikasi behar dugula? Nik dakidanez, funtzionarioei doako eskolak eman izan dizkiete euskara ikas zezaten; hor ez dituzte haien diru-sarrerak kontuan hartu eta, are gehiago, euren lanorduen barruan liberatuta ibili dira euskara ikasten. Politikariekin ere berdin gertatu da, eta, azken urteotan, atzerritarrek ere doan ikas dezakete euskara, haien diru-sarrerak kontuan hartu barik.

Niri hori guztia ondo iruditzen zait, euskara ahalik eta pertsona gehienek ikas dezaten eta gure hizkuntzak bizirik jarraitu dezan. Baina orduan, zer dela eta ordaindu behar dut nik? Gainera 500 euro? Lotsagarria pentsatzen zait bertako bizilagun batek

bertako hizkuntza hobeto ikasi eta erabili ahal izateko dirua ordaindu beharra. Gainera, jakin badakit hainbat udalerritan doan dela euskara ikastea bertako udalei esker, Azpeitian adibidez. Nik ez dut titulurik nahi, euskaraz ondo berba egin eta ondo idatzi nahi dut. Ni prest nago nire denbora eta lana horri eskaintzeko, baina badirudi Euskal Herriko erakundeak ez daudela prest bide hori errazteko.

**GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.000 (espazioak barne).**

Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena. Gutuna helarazteko bideak: [aldizkaria@pilpilean.eus](mailto:aldizkaria@pilpilean.eus)

## HAUSNARKETA

### Loteriarekin pozik?

Inoizko saririk handiena utzi du Loeria Nazionalak Soraluzen: hiru milioi euro inguru. Poz handia hartu dute saridunek, jakina; baina haiekin batera poztu dira beste herritar asko ere.



**IÑAKI  
ETXABE**  
HARAKINA

"Niri ez zait tokatu, baina loteria tokatu zaien ezagun asko ditut eta pozik daude guztiak. Oso ondo iruditzen zait tokatu bazaie, gozatu dezatela! Oraindik herrian ez da igarri, baina kobratzen dutenean, uste dut zerbait igarriko dela. Diru asko da".



**EZOZI  
ARIZAGA**  
BASERRITARRA

"Niri ez zait tokatu, baina oso pozik nago herrian tokatu delako. Saltzaileok oraindik ez dugu igarri, baina ea dendak apur bat mugiarazten dituen, ea diru hori ikusten den! Kobratu, asimilatu... egin beharko dute lehenengo. Baina ni oso pozik nago".



## ZIR(R)IKA

P.G. EUROTEA



## PUNTUA



SARA PEÑALBA

## Eskola txiki baten onurak

**Z**ergatik erabaki genuen nire alaba Osintxuko eskolan eskolaratzea? Alabak bi urte bete berri zitueneko beste haur batzuekin harremantzeko beharra zuela igarri genuen, baina eskola handi batera eramatearen ideiak ez gintuen konbentzitzen. Lagun batek bere semea Osintxura eramaten zuela azaldu zidan eta orduan hasi ginen aukera horri bueltak ematen, bertan eskolaratzea erabaki genuen arte. Gehien erakarri gintuena adin desberdinen arteko hartu emana eta eskolaren txikitasuna izan ziren; txikitasun honek gurasoen parte-hartze zuzenagoa eta auzoarekiko lotura errazten dituelako.

Orain bigarren semea bertara eramanez nahiko genuke eta izugarri poztu gaitu auzoan gure asmo berdina duten guraso taldearen ilusio eta gogoak. Ponportola Guraso Taldea sortu dugu elkarrekin eta gure asmoa proiektuari etorkizuna ematen jarraitzea da; kalitatezko hezkuntza batera bidean, Osintxuko eskolak hainbat aukera ematen dituela iruditzen zaigulako. Interesa duen edonori gurekin harremanetan jartzeko deia luzatzen diogu! Gure kontaktua honakoa da: ponportola@gmail.com



ESTHER  
IÑURRIETA  
HERRITARRA

"Niri ez zait loteria tokatu, baina herrian tokatu da eta pozik nago horrekin, oso pozik, egia esan. Gainera, ezagutzen ditut loteria tokatu zaien herritar batzuk eta oso pozik daude. Izan ere, pozik egoteko modukoa da! Azkenean, seguru denon onerako izango dela".



MARIAPI  
ETXEBERRIA  
DENDARIA

"Sentitzen da saridunak pozik daudela, guri ere poza ematen digu. Dendan oraindik ez dugu igarri, ea igartzen den. Herrirako halako gauzak aberasgarriak dira. Jendea loteria erostera animatuko da, orain eta Gabonetan. Ea hurrengoan tokatzen den!"



# Pozaren aparretan oraindik

Joan zen asteburuan Txurruka jatetxeak ia hiru milioi euroko loteria saria banatu du berrogei pertsona baino gehiagoren artean. Saritu bakoitzak 60.000 euroko saria eskuratuko du dezimo bakoitzeko eta poza nabaria da euren aurpegietan. 49 dezimo saldu dira guztira, bi pertsonak bina erosita eta gainontzekoak banaka edo taldeka.

Testua: **Egoitz Unamuno**. Argazkiak: **Fernan Oregi**.



a hiru milioi euroko saria, 60.000 euroko 49 boletotan. Horixe izan da Txurruka jatetxeak Espainiako Loteriaren bitartez banatu duen sari erraldoia. Ogasunari eman behar zaiona deskontatuta, sarituek 52.000 euroko dirusaria poltsikoratuko dute boleto bakoitzarengatik.

Zapatu eguerdian berria jakin zenetik, gaia bolo-bolo ibili da herritarren artean. Sarituen izenak, egokitutako sariaren zenbatekoak eta bestelako xehetasun asko herritarren arteko berbetagai izan dira, jakin-min handia piztu baita. Ostera, gaiak ez du pareko oihartzunik izan herritik kanpoko medioetan, beharbada, sarituren batek komentatu duen moduan, loteriaren saltoki nagusia Abadiñon zegoelako eta sari nagusia Sorluzera etorri delako.

### Zenbaki berbera hogeita hamar urtetan

Hogeita hamar urte baino gehiago dira Txurrukan Loteria saltzeari ekin ziotela, beti zenbaki berberarekin: 56718. Eroslerik gehienak (18) “abonatuak” dira, astero astero euren dezimoa hartzen dutenak, eta gainera, euretako askok hasieratik erosi izan dute Loteria Txurrukan. Gainerakoak noizbehinkako erosleak izan ohi dira. Batzuen eta besteen artean, Txurrukan astero ekartzen dituzten dezimo guztiak saltzen dituzte. Horrek argi erakusten du Espainiako Loterian jokatzeko zaletasun handia dagoela herrian.

Saria egokitu zaien herritar batzuk Txurrukan.

# "Berrogei urte daroaguz zenbaki berdinarekin"

MARIAJE ETXEBERRIA  
TXURRUKA JATETXEKO SUKALDARIA



## Zela bizi izan dituzu azkenengo egunok??

Oso urduri, uste dut jendeak etengabe galderak egiten dizkidalako dela. Jende askok, baina askok, deitu du zoriontzeko eta beste askok loteria erosteko, eta ez dago loteriarik. Ez dago! Jendeak dio berriz tokatuko dela, bale, izan daiteke, baina guk berrogei urte daroaguz astero astero zenbaki berdinarekin jokatzeko, eta azkenean tokatu da, bale, baina aurretik zenbat diru gastatu dugu? Tira, jende askori tokatu zaio eta oso pozik gaude ondo banatuta dagoelako. Badira afaltzera etorri eta bi boleto erosi zituztenak... Eta dirutxo ederra da. Ea noiz aurrezten duzun diru kopuru hori.

## Izango da boletoa erosi ez izanaren penaz gelditu den jendea ere.

Bai, asko. Bazkaltzera etorri eta batek hartu eta besteak ez... Hori gogorra da. Edo, badago arraina ekartzen digun ondarrutar bat, oso loteriazalea dena eta Gabonetakoa hartu zuen, baina asterokoa ez,

eskeini genion arren. Pena da, baina...

## Beraz, pozarekin batera, pena ere bai.

Bai, batez ere beti hartzen duten horientatik. Batzuek noizean behin jokatzeko dute, baina badago jendea loterian jokatzeko gustatzen zaiona eta sarri hartzen duena... Horiengatik pena handiagoa ematen du.

## Baina tokatu zaien gehienak abonatuak izan dira, ezta?

Bai, 18 pertsona abonatuak dira. Asteburu horretan dezimo denak saldu ziren, bat izan ezik, hori bueltan bidali genuen.

## Normalean denak saltzen dira?

Bai, oraingoan bezela sei eurokoak direnean, bai. Hemen, inguruotan, jokalaria gara, eh! Jendeak asko jokatzeko du. Guk familian hartzen dugulako baina...

## Zela jakin zenuten tokatu zela?

Bazkaltzen geundela, Iñaki etorri zen, senarra, serio serio: "gordoa tokatu zaigu" esanaz, eta guk "ba egin garrasi batzuk edo egin zeozer!", hain zegoen pasatuta... Gerora asimilatu

dugu gehiago, baina oraindik ez asko, lanean jardun dugu eta.

## Ospatu duzue?

Ez, oraindik ez, ez dugu izan astirik.

## Pentsatu duzue zertan gastatuko duzuen?

Bai. Zulo batzuk tapatuko ditugu, baina gehiena jaten eta edaten gastatuko dugu (barreak). Ea senarra eta biok jubilatzeke bultzadatxo bat ere izaten den.

## "OSO POZIK GAUDE JENDE ASKORI TOKATU ZAIOLAKO ETA SARIA ONDO BANATUTA DAGOELAKO"

## "JENDE ASKOK DEITU DU ZORIONTZEKO ETA BESTE ASKOK LOTERIA EROSTEKO, ETA EZ DAGO"

## "Niri familian hartzen didate"

Nik boletu baten saria jaso dut erdibana. Egia esateko, ez dakit jokatzeko noiz hasi nintzen ere, niri familian hartzen didate boletoa, eta eskerrak hala den, niregaitik balitz ez nuen boletorik izango. Eguerdian jakin nuen tokatu zitzaigula, jate txean bertan. Aitak esan zigun gordoa tokatu zitzaigula eta ni momentu horretan pasatuta gelditu nintzen, ez nekien non nengoen



Ikerne Laskurain.

ere. Azken egun hauek horrelaxe pasatu ditut, sekulako despistearekin. Domekan lagun batzuekin atera nintzen ospatzera, baina gainontzean lanean jarraitu dugu norma-normal. Pentsatu dut bidaiatxo bat egitea, dentistarenera joatea (barreak), eta gainerakoa gordetzea behar dudanean erabiltzeko. Orain erosten jarraituko dut, noski!

## "Oraindik ez dut sinesten"

Nirea kasualitatea izan da. Mendira noala, askotan pasatzen naiz Txurrukatik zeozer hartzera eta oraingoan parean tokatu da. Asteartean etorri nintzen kafea hartzera eta Gabonetakoa eta astekoa erosi nituen. Zapatuan bertan jakin nuen tokatu zela, koinatuak esan zidan kalean, baina ez nengoen seguru aste horretan erosi nuen ala aurreko astean.



Gonzalo Portu.

Etxera joan nintzenean ikusi nuen aste horretakoa zela eta ordutik sentitu dudana normalean baino burukomin txikiagoa izan da (barreak). Oraindik ez dugu ospatu baina badugu asmoa. Bazkaritxo bat familiarekin, bidaiatxo bat, etxeko konponketaren bat... Ez du ematen askoz gehiagorako. Etorrizunean ere berdin jarraituko dut, tarteka erosten.

**ION MURGIZU BAKAIKOA**  
**PINTOREA**

eremua  
dekorazioak  
industrialak

Tel. 943 75 13 24 - Mug. 652 77 70 30

**FOGASLER**  
ITURGINTZA

943 75 16 46 (Soraluze) - 943 71 82 49 (Oñati)  
fogasleriturgintza@gmail.com

**Kontulan**

aholkularitza  
**ABOKATUAK**

Errenta, altopenak - Administrazioa, Inak  
Tratamendu burokratikoak - Lan-arloko aholkularitza  
Enpresen kontabilitate/leialtasunak - Kontabilitatea

Santa Ana 13 - 1. eta. 20190 Soraluze  
Tel. 943 75 17 82 / Fax 943 75 01 82

**MABEL**  
IL-FARFAINDEGIA

Biarentzako keratina  
tratamendua  
Depilazioa  
Be-sustrairik gabeko  
permanentes  
Makilajua  
Manikura  
erdiraunkorra  
Solarikuma

Errabal 1  
Tel. 943 75 14 89

*sutarako egurra salgai*  
pago-egurra, haritz-egurra...

**SUMA**  
basolanak

mug. 635 71 34 08

## “Astero etortzen gara boletoa hartzera”

Gure loibak Txurrukan lan egiten du eta berak jakinarazi zidan tokatu zela. Hogeita hamar urte inguru dira erosten dudala (Lourdes). Nere amaginarrebarekin batera hasi nintzen eta nik ordutik astero astero erosten jarraitu dut. Bera itsututa zegoen zenbaki horrekin. Egun bat daukagu ipinita eta astero etortzen gara, kafea hartu, loteria hartu



Lourdes Lizarralde eta Arantxa Mendikute.

eta jaisten gara. Nik hogeit bat urtean erosi dut, amaginarreba zenaren boletoa nik hartu nuen eta (Arantxa). Jakin nuenean saltoka hasi nintzen. Dirutxo polita da eta ilusioa egiten dizu, baina oraindik ez dugu ospatu. Hiru hilabete ditugu kobratzeko eta gozatzen hasteko.

## “Oraindik ez dut sinesten”

Nik bi boletu ditut eta oraindik ez dut sinesten, sekulako poza sentitu dut. Lehen nire amak eta nik hartzen genuen boletu bana eta ama hil ostean nik jarraitu dut biak hartzen. Hogeita hamar urte inguru dira hasi nintzela, jatatxean lanean hasi nintzenetik. Oraindik ez dut ospatu. Lehenengo nire onera etorri behar dut eta gero



Nerea Elizburu.

egingo dugu zeozer, denborarekin.

Dagoeneko pentsatu dut zertan gastatuko dudan, bizkor gastatuko dut (barreak). Zulo batzuk tapatu, bidaitxo bat egin, garajetxo bat erosi... Horrelako kontu batzuk. Eta batez ere lasai lo egin. Ez dakit zergatik baina hobeto lo egiten da (barrea). Jarraituko dut erosten, noski!

**Etxabe Harategia**

- Etxera eramaten da
- Enkarguak hartzen dira
- Sorakuzko basementako produktuek
- Etxeko tripaiki eta txisturrak

Etxaburua 5  
Telefonoa: 943 75 22 79

**Fanny Mertzeria**

Arropak konpontzen ditugu  
Santa Ana 22, beheko - 688 81 53 92

**Sorakuzko Kooperatiba Elkarte**  
1910etik abiatik

Arraindegia, janaria, errapak, etxeko tresnak, etxera eramateko zerbitzua

Astebetezko ordularia:  
09:30 - 12:30 eta 15:00 - 19:45  
Larrietatik: 09:30 - 13:00

Kalebarren 4  
Tel.: 943 75 13 45

**Ekonomia Ituna**  
*zerikusi handia... nirekin!*

*Eskatzi, azalera, bion comen*

ELIZKO JAKINLARITZA GOBIERNO VASCO

ELIZKO JAKINLARITZA GOBIERNO VASCO



## HARTU PARTE DANOBATGROUPen EUSKARAREN EGUNEKO LEHIAKETAN!

Sartu lehiaketako estekan, ezagutu euskara arloko gure ekimenak eta irabazi **bi lagunentzako 360°ko esperientzia gastronomikoa Basque Culinary Center-en eskutik.**

# Batzen gaituen esentziak izan dezala presentzia



<https://info.danobatgroup.com/euskara/lehiaketa-2019.html>

\*Parte hartzeko azken eguna: 2019ko abenduak 2, 00:00



Marras Hockey Taldea osatzen duten alebin eta benjamin mailetako jokalaria.

# Marras Irristaketa Taldea, indartsu

Gaur, barikua, aurkeztuko dute Soraluzean sortu berria den irristaketa taldea; haren baitako hockey taldeak, berriz, ligan debutatu berri du

Sorrera indartsua izan du Marras Irristaketa Taldeak. Iaz umeendako zein helduendako patinaje eskolak ematen hasi eta berehala erakarri zuten ume, gazte eta heldu ugariaren interesa.

Hala, irailetik buru-belarri dihardute elkartearen sortzeko eta sendotzeko lanean. Besteak beste, txapelketarako hockey taldea sortu dute aurten, alebin eta benjamin mailetan.

Hockey taldeen sorrerari dagokionez, garrantzitsua izan da Onintza Ibarzabal hockey jokalaria soraluzetarraren erreferentzialtasuna: 14 urte ditu eta infantil, junior eta emakumezkoen taldean dabil Espainiako ligan; Euskal Selekzioan ere badabil, Txuri Urdin taldearekin Espainiako Iberdrola ligan jokatzeko du. Kirol mota honek aurrera

egiteko eskaintzen duen aukera ikusita herritar asko izena ematera animatu dira.

## 16 jokalaria federatuta

Aurten 16 jokalaria dituzte federatuta eta joan den asteburuan debutatu zuen Marras Hockey Taldeak ligan. Bi partidu jokatu zituzten Miranda Ebron, eta biak galdu. Hala ere zorion hitzak besterik ez dituzte jaso, erakutsi baitute "Hockeya indartzeko asmoz iritsi berri direla". Liga osatzen duten gainerako taldeen ongi-etorri beroa jaso dutela kontatu du Iraitz Ibarzabal entrenatzaileak.

Horrez gain, gaur, barikua, Marras Irristaketa Taldea aurkeztuko diote herriari. 18:30ean Santa Anatik abiatuta, patin kalejira egingo dute. Ondoren, hockey taldea aurkeztuko dute zubi nagusian.

## Hamabostero Hankabero abian

Aste honetako eguaztenean estreinatu zuen 2019-2020 ikasturtea Hamabostero Hankabero ekimenak, aurtengoan berritasun asko izango dira.

Orain arte antolatzaile izan den Soraluze, mugituz! taldeari Mesedeetako zaharren egoitza batu zaio eta ekimena gauzatzeko elkarlanean dabilta.

Izan ere, bi elkarteek inklusioa, kirola, birziklapena eta beste filosofia batzuk partekatzen dituzte. Horregatik erabaki dute Hamabostero Hankabero elkarrekin antolatzea.

## Kartilla, zigilatzeko

Elkarlanak berritasun batzuk ekarriko dizkio ekimenari. Batetik, aurten kartilla emango diete ibiltariei eta ibilaldi bakoitzaren amaieran zigilua jarriko diete Mesedeetako egoitzan, anoa ematez batera. Ikasturte amaieran, kartilladunek Mesedeetako egoiliarren oparia jasoko dute.

Bestetik, ordutegi berria izango dute ibilaldiek: 19:00etan beharrean, orain 18:00etan abiatuko dira.

Azkenik, ibilaldietako gidaria ere "berria" izango da, izan ere, zeregin horretan Soraluze, mugituz! ekimeneko ordezkariak eta egoitzakoak txandaka jardungo dute.

Halaber, egoiliarrek azken aste hauetan ibilaldietako planoak prestatzen ibili dira, argazki eta guzti, gero plano horiek Hamabostero Hankabero ko partaide guztiei emateko.



# Brontzezko domina Espainiakoan

Paula Rascon Sousak (Soraluze, 2004) brontzezko domina eskuratu du Espainiako gimnasia erritmikoko txapelketan.



Maider Díez, Ainhoa Bizkarra, Paula Rascon, Ana Portu eta Izaro Altuna (Moises Altunaren alaba).

Azaroko bigarren asteburuan Espainiar estatu osoko lurraldeetatik etorritako ehun eta bat talde lehiatu ziren Iruñeako Navarra Arena pabiloian. Bertan, Paula Rascon plazentziatarrak jubenil mailako hirugarren postua bereganatu zuen Club Gimnasia Ritmica Ipuruarekin. Taldekideen artean, bazen aita


eta aitita-amamak soraluzetarrak dituen kide bat ere: Izaro Altuna.

## Soraluzetik Eibarrera

2010ean, sei urte zituela, hasi zen Paula Rascon gimnasia erritmikoa praktikatzen Soraluzen, garai hartan taldea baitzegoen herrian. 2015etik Eibarren dihardu.

## Iñaki Goenaga txapeldun

Euskal Herriko Mendi Duatloiko zirkuituan txapeldun izendatu berria da Iñaki Goenaga soraluzetarra. 25 urtez azpikoen mailan da txapeldun. Horrez gain, sailkapen orokorrean (gazteak eta nagusiak) 6. postua eskuratu du. Irailean hasi eta joan den zapatuan bukatu zituen Goenagak duatloi zirkuitua osatzen duten 11 lasterketak. Datorren urtean ere lehiatuko da, nagusien mailan.




Iñaki Goenaga korrika.

## Elite mailan sailkatu zen Jokin Muñoz Donostiako maratoian

Lau hilabeteko prestakuntzaren ondoren, Donostiako maratoian bere markarik onena erdietsi zuen Jokin Muñoz soraluzetarrak joan den domekan, azaroaren 24an, 2.28.15 denbora eginez. Hori gutxi ez, eta sailkapeneko lehen hamar onenen artean helmugaratu zen, horrela, Gipuzkoako txapelketako

hirugarren postua eskuratu zuen. Hortxe, bada, elite mailako marka egitea lortu zuen Muñozek maratoian. Korrikalaria “oso pozik eta gustura” dago emaitzarekin. Hala, eskerrak eman nahi dizkie lau hilabete hauetan jaso dituen animo guztiengatik eta baita egunotan jaso dituen zorion agurrengatik ere.



Jokin Muñoz maratoian.



Shirley Davis & The Silverbacks. ERRABAL.



Allnighters. ERRABAL.

## Blues Hotsak jaialdia abenduan

Abenduaren 13tik 15era bitartean, Blues Hotsak jaialdia ospatuko da herrian, hiru blues kontzertu eskainita.

Errabal kultur elkarteak blues musika ekarriko du berriz herrira. Lehenengo emanaldia Shirley Davis kantari ingelesak, Soul estiloko europar diva berritza hartzen denak, eskainiko du. Antzokian arituko

da abenduaren 13an, 20:00etan. Musika beltz gordina da Shirley Davis & The Silverbacks taldearena, soul hutsa, afrobeat ukitu batekin. Abenduaren 14an, bluesa Zentrora itzuliko da The Allnighters taldearen

eskutik. Gasteizen sortutako boskoteak Rhythm and Blues doinuak eskainiko ditu. Diotenez, emanaldi bakoitza benetako jai bihurtzen du talde honek. Emanaldi hori, zapatu iluntzean gozatu ahalko da, 20:00etatik aurrera.

Azkenik, abenduaren 15ean, Jon Gurrutxaga & Urbil Artola bikoteak euskal kantagintza akustikoaren muestra bat eskainiko dute, bluesaren bidetik interpretatuta. Emanaldi hau zubian eskainiko dute, domeka eguerdiko 13:00etan.

## Irakurketa feminista eta kontzertu poetikoak

Abenduaren 17an egingo dute Irakurketa Feministaren hurrengo saioa, bertan, Gloria Fuertes idazle madrildarraren testuak izango dituzte berbetagai, Josu Landa idazle eta itzultzaileak euskarara ekarritako testuak baliatuta.

Gainera, abenduan hasita, testu edo gai bakoitzarekin

lotuta, kontzertu eta emanaldiak antolatuko dituzte. Horietan lehena Mursegorena (Maite Arroita Jauregi) izango da, eibartarraren ikuskizunak Gloria Fuertes-en letrak izango ditu ardatz. Emanaldia hilaren 20an eskainiko du, barikuan, iluntzeko 20:00etan, Zentroan. Urtarrilean, berriz, Anari kantaria etorriko da.



# GOKI

erreformak



### FATXADA BIRGAITZEAK

S.A.T.E.  
FATXADA AIREZTATUAK  
BIRGAITZE TRADIZIONALA  
BALKOIEN BIRGAITZEA



### ESTALKI ETA TEILATUAK

ERABATEKO BIRGAITZEAK  
TERRAZA ETA ESTALKI LAHIAK  
MANTENTZE LANAK  
SEGURTASUN SOKA FINKOAK



### BARNE ERREFORMAK

ETXEBIZITZAK  
LOKAL KOMERTZIALAK  
BULEGO ETA ENPRESAK  
SUKALDE ETA BAINUGELAK



### IRISGARRITASUNA

OZTOPO ARKITEKONIKOAK KENTZEA  
IGOGAILU INSTALAZIOAK  
0 KOTA



### BULEGO TEKNIKOA

ERAKINEN IKUSKARITZA TEKNIKOA  
EFIZENTZIA ENERGETIKOKO ZURTAGIRIAK  
ERAKUNTZA PROIEKTUAK

**ELGOIBAR**  
943 74 42 23

**SORALUZE**  
943 12 57 41

**BERGARA**  
943 76 53 42

**TXURRUKA**  
JATETXEA

Sukalde  
Irretradizionala  
Eguneko menuak  
Asteburuetako  
menu berezia  
Karta  
www.txurruka.com  
Tel.: 943 75 15 81

**KM design**

Kiria Montalar

943 76 09 85

km.montalar@ymhoo.es  
www.kmdesign.es

Pof. Arriaga 3  
BERGARA

- Disainueta Fabrikazio lanak
- Sukaldeak  
Horma-oinarriak  
Logelak  
Zonak  
Atalak...
- Arotzeria lanak oro har
- Instalazioak

**IZXGURRE**  
Igeltzeritza

Eraikin berriak • Kalitatezko emaitza  
Erreformak • Era guztietako igeltzeritza

50 urteko esperientzia • 610 638 913 • 640 867 299

**Armendi**  
Jatetxea

Sukalde  
Irretradizionala  
Eguneko menuak  
Asteburuetako  
menu berezia  
Karta  
Burduntzian  
erretako bildotsa  
Etxeko Irtoak  
Souflak  
Tel.: 943 75 10 02

**Carpinteria**  
**MANU**  
Aroztegia

Atak  
Bontak  
Portak  
Sukaldeak  
Tornak

Manuel Cifuentes  
Estazioa 8. barrena • Mug. 636 05 81 25

Euskalzaletasunaren alde:



# Plaentxi Eskola aitzindari

MATEMATIKAK ERAKUSTEKO METODOLOGIA ALDATU DUEN LEHEN IKASTETXEA IZAN DA

**TESTUA** UBANE MADERA  
ARGAZKIAK: FERNAN OREGI ETA U.M.

XIV. mendetik matematikak ikasi eta erakutsi dira algoritmo tradizionalak baliatuta. Bestela esanda, oinarriko kontzeptuak buruz ikasi eta hortik abiatuta irakatsi dira gainerako ariketak egiten, beti ere, testuliburuak bidelagun. Orain arte.

Izan ere, Plaentxi Eskolan orain dela lau ikasturte aldatu zuten matematikak erakusteko metodologia: testuliburu baztertu, eta Cuisenaire-ren errepletak erabiltzen hasi ziren.

## Emaitza harrigarriak

Gipuzkoako ikastetxeen artean lehenak izan ziren, baita Euskal Autonomia Erkidegoan ere. Aitzindariak izateaz gain, ausartak izan ziren, euren kabuz erabaki baitzuten inork aplikatzen ez zuen sistema eraldatzailea erabiltzen hastea.

Bada, lau urte geroago, Plaentxi Eskola eredu garri bilakatu da gainerako eskola publiko askorendako. Azken bi urteotan Plaentxi Eskolako irakasleak lau eskolatan izan dira esperientzia partekatzen: Zarauzko Orokieta, Oñatiko Errekalde, Barakaldako Artegabeitia eta Altxoko eskoletan; Zaldibiakoak eta Artziniegakoak ere egin diete bertaratzeko eskaera. Horrez gain, jakitun dira beste bi eskolak ere badutela interesa. Izan ere, errepletan bidezko



3. mailako ikasleak Ane Arronategiren azalpenak entzuten, ikasgelan.

manipulazioak irakasleek espero ez zituzten emaitza harrigarriak eman ditu ikasleengan.

## Liburukoa errepletekin

Eskolako irakasleen kezka batengatik hasi zen guztia. Pili de la Presak, zuzendaritzako ikasketa-buruak, esplikatu duen moduan: "Badira 6-7 urte irakaskuntzako metodologia aldatu eta ikasleen konpetentziak lantzen hasi ginela proiektuen bidez. Harrezkero, Lehen Zikloan (6-12

urte) ikasgai guztiak liburu barik lantzen dira, matematikakoa kentzea bakarrik falta zen. Ziklo hartako irakasleengan kezka sortu zen: matematikako testuliburu ez zen egoki ikusten, testuliburuarekin ez baikenituen lortzen nahi genituen emaitzak. Egoerari buelta emateko zer egin pentsatzen hasi ginen. Gure aholkulari zerbitzuarekin, Berritzegunerekin, harremanetan jarri ginen. Jakinarazi genien matematikako testuliburu baztertu nahi genuela, matematikak beste modu batera lantzeko. Proiektuak lan egiten zuten ikastetxeek matematika zela erakusten zuten galdetu genuen, eta ikusi genuen, batera edo bestera, funtsean guztien oinarria zela orain arteko metodologia. Beste aukera bat

**PLAENTXI ESKOLAKOAK LAU ESKOLATAN IZAN DIRA MATEMATIKAK UMEEKIN ZELA LANTZEN DITUZTEN ERAKUSTEN**

zen erregleten bitartez erakustea, baina horri buruz ez zekiten asko. Hala ere, testuliburua edo antzekoa erabiltzea guretzat ez zen aukera ona, beraz, erregleten bidetik jo genuen. Ikasturte hartan bertan hasi ginen liburuak markatzen zuena erregleten bitartez erakusten, bestela esanda, EABA (Eragiketa Aritmetikoentzako Beste Algoritmoak) sistema erabiltzailea".

**Matematikak ulertarazi dituzte**

2016-17 ikasturtean lehen mailakoekin eman ziren aurreneko pausoak. Ugalderen esanetan urte hartan bertan ikusi zituzten emaitzak: "Oso-oso txukunak. Umeak askoz ere motibatuago zeuden, matematikak ulertu egiten zituzten, ez bakarrik buruz ikasi (...). Azken batean, matematikan emaitzarik onenak dituztenek ez dituzte algoritmo tradizionalak erabiltzen".

Lehen mailako esperientzia klaustroideekin partekatu ondoren, hurrengo ikasturtean 3. mailan ere metodologia horrekin lan egiteko erabakia hartu zuten. Eta horrela, gaur egun Plaentxi Eskolako ikasle guztiak erregleten sistema erabiltzen dute matematikak ikasteko. Ez hori bakarrik, eskolari esker, haien gurasoek ere jaso dute erregleten gaineko ezagutza; eta esan bezala, orain gainera, eredu "esportatzen" dihardute.

"Matematiketan gu aurrean goaz, eta hori hemengo eskolak metodologia aldatzea erabaki duela geratu da; irakasleen inplikazioa ikusgarria izan delako. Demaseko eskola dugu", azpimarratu du Ugaldek.

**"Erregletekin errazago ulertzen dute"**

**ANE ARRONATEGI, EDURNE UGALDE ETA PILI DE LA PRESA**



Ane Arronategi, Edurne Ugaldek eta Pili de la Presak erregletekin izandako esperientzia esplikatu dute:

**Zergatik ematen ditu emaitza hobekak erregleten sistemak?**

Ikasleak matematika edukiak bereganatzeko hiru fase behar ditu: manipulazioa, grafikoa eta sinbolikoa. Liburuak fase sinbolikoa bakarrik bermatzen du eta erregletek, berriz, hiru faseak.

**Badiozue emaitzak harrigarriak direla...**

Detalle bat: erregletekin ikasten, ikasle batek esan zuen: *orain ulertzen dut nik hau*, eta zailtasunik ez duen ikasle bat da. Gauza bera gertatu zaigu gurasoen ikastaroetan ere. Oro har, buruko kalkuluan eta hizkuntza matematikoan igarri dugun alde harrigarria da. Ikasleen jarrera askoz ere parte-hartzaileagoa da eta zailtasunak dituzten ikasleek askoz ere errazago ulertzen dute, eta bakoitzak bere eritimoa jarrai dezake.

Gainera, erregletekin batxilergoraino iritsi daiteke.

**Inguruko inork ez zuen sistema ezagutzen, ezta aplikatzen ere; zuek zela landu duzue gaia?**

Berritzegunek, gure aholkulari zerbitzuak, eman zigun haren berri eta gaian adituak diren Toni Martin eta Marcos Marrero kanariarrek harremanetan jarri gintuen. Biak hemen izan dira, eta etengabe dugu harremana beraiekin, urtero. Bestalde, irakasleok eta zuzendaritzako kideok formazioari ordu asko eskaini dizkiogu gure kabuz. Toniren eta Markosen bideo guztiak ikusi ditugu, materiala sortu dugu, euskaraz ez baitago ezer... Etxean ordu pila eskaini dizkiogu gaiari, eta oraingo irakasleek ere bai. Ildo beretik, bloga sortu dugu eta bideoak txertatzen ditugu bertan, guk hemengo eskolan egindakoa besteentzat baliagarria izan dadin. Izan ere, orain arte ez zegoen gaiarekin lotutako euskarazko edukirik.

## ZORION AGURRAK



**Nahia Mazorriaga Rodriguez**  
Abenduaren 6an, 5 urte. Zorionak maitxia! Bost urte gure etxeko bazter guztiak argitzen. Maitxe zaitxugu!!




**Sara Muñoz Iñurrieta**  
Azaroaren 3an, 4 urte. Zorionak politikori! Txokolatezko muxu pila! Etxeko danon partez.



**Markel Lizarralde**  
Azaroaren 10ean, 8 urte. Zorionak txapeldun! Pila pila maitxe zaitxugu! Jarraitu beti bezain alai! Patxo haundi haundi bat!



**Nerea Arriaga Fernandez**  
Azaroaren 7an, 10 urte. Zorionak guapa! Etxeko guztien partetik.



**Haizea eta Laia**  
Azaroaren 19an, 12 urte eta urriak 5ean jaio zen. Zorionak bixori mordua maite zaituztegu! Muxu! Etxekoak.



**Izar Uzin**  
Azaroaren 24an, 5 urte. Zorionak etxeko danon partetik! Segi holako alai eta saltsera izaten!



**Ivan Ayora Plata**  
Azaroaren 30ean, 24 urte. Japiberdei tuyu! Disfratau zure egunaz eta ospatu bihar dan moduan. Etxekuen eta Maialenen partez.

## HILDAKO ETA JAIOTAKOAK

### Hildakoak

Jose Maria Iraolagoitia Murua

### Jaiotakoak

Daniel Eloy Borja Armendia

Renad Attou

Hafsa Balhaj El Amrani

## ESKELAK

XXV. URTEURRENA

### Anjel Irazabalbeitia Aldazabal



1994ko azaroaren 18an hil zen

Herri aske bat amesten zendun katerikan etzuen, ta herri horren alde borrokan eskeini zenuen dena,

zuk ermetako hazien fruituz ase nahi dugu barrera, ta garaipena izango duzu omenaldirik onena.

Beti izango zaitxugu gure bihotzian

Lurdes eta sendia.

## OHARRAK

### Pertsona bat behar da euskarazko errefortzu-saioak emateko

Egin beharrekoa: Lehen hezkuntzako ikasleei euskarako errefortzu-saio/eskolak eman.

Lan-jarduna: astean 6 orduko lan-jarduna, urtarriletik ekainera bitarte.

Besteak beste, baloratuko da euskararen eta euskal kulturaren ezagutza maila eta gaztetxoekin harremantzeko gaitasuna.

Hautagaitzak aurkezteko epea zabalik dago abenduaren 9ra arte.

### Hezitzailea behar da udal-gaztelekurako

Lan-jarduna: astean 10 orduko lan-jarduna (asteburuetan), urtarriletik ekainera bitarte.

Besteak beste, baloratuko da jarrera dinamiko eta sortzailea eta taldean lan egiteko gaitasuna.

Curriculumak aurkezteko epea zabalik dago azaroaren 30era arte.

Bidali hautagaitzak eta curriculumak [miren@pilpilean.eus](mailto:miren@pilpilean.eus) helbidera.

Informazio gehiago behar izanez gero deitu 635707232 telefonora eta galdetu lasai (Miren).

Deitzailea: *Pil-pilean Euskaltzaleen Elkarte*

*Jatearen plazerna, bertanahi bertara*

**Batzoki**

eguzko menua  
aizburuzatza  
karta eta raziak

ogitarriak eta  
harbuzegak  
entzuga bereziak

Basila eta  
lupa anko  
bestiak

Erreserba: 943 75 20 10

**ELIZPE HORTZ KLINIKA**

Zure gaitako hortz idekia,  
puntu puntako teknologekin lan  
egiten dugu. Cad Cam sistema  
bertanaka erabiltzen dugu.

Elizburu, 3 behea  
SOEALUZTE  
Tel: 943 75 25 67  
e-mail: elizpe.hortz@gmail.com

Ordutegia:  
Asteleneetik ostiralera  
10:00 - 11:00 eta 16:00 - 20:00

**Mimar**

*Iluspaingedia  
Estetika  
Solertama*

Gabolaq 4, Ibaeta

Tel: 943 75 13 13 - 982 51 14 04

**JUAN MARI ARRANDEGIA**

ARRANDEGIA

NEBARKU PLAZA - 943 75 24 48

Araia triakoa  
Etxera eramateko zerbitzua  
Ekarpenak bertara diraga

**BOLIA**

TARLENA

Piribok, arzak,  
horributak  
Gazte-giroko festa

**KLB6**

Kalebarren 6  
943 67 26 26  
Makur-eta-makur  
modu-garbia

Facebook icon

**ISOLID**  
**VERO MODA**

MAISON MARTIN MARGIELA  
NEW BALANCE

**Hortz klinika**

Erreal 1  
Tel: 943 75 16 13

Javier Alonso  
Mediku Estomatologia  
K.Z. 48.000.590

27 urteko esperientzia  
odontologia, protesiak,  
odontopediatria, ortodontia,  
implantziak, estetika...

Katia Gustinne  
Odontologia  
K.Z. 48.001.541

Zerbitzu radiologiko onakorra (3D):  
ekianeta, orto eta tele.

**MENDIZABAL**  
okindegia

Ogla - Prentsa - Gosariak

Asteleneetik  
ostiralera:  
08:00 - 13:00  
17:00 - 20:00

Larunbatak eta  
igandeak  
08:30 - 13:15

Kalebarren 10  
Tel: 943 75 13 99

**Txoko**

Eguzko menua,  
plater konbinatuak,  
harbuzegak,  
ogitarriak,  
raziak, pizza,  
gosiak...

Entzuga  
egiten dira

Tel. 943 75 17 89

INTERIORISTA  
AINHOA LETE

ERREFORMAK

**ZANGITU**  
BARNE  
DISEINUA

- Zure beharretara egokitutako distribuzioak
- Etxebizitza eta lokal komertzialen proiektuak,  
aurrekontuak eta obra
- Koloreak, texturak, tarimak, azulejoak, oihalak...  
Material egokienak aukeratzen lagunduko dizugu

Telesforo Aranzadi 2 · Bergara

zangitu barne diseinua

ainhoalete@yahoo.com  
635 731 268 · 943 760 869

# Euskararen eguneko ekitaldia

abenduak

3

Plaza Zaharreko karpan  
19:00etan

**HIZTUNEN TESTIGANTZAK**  
**Belarriprest eta Ahobiziak**  
**EUSKARALDIA 2020**  
**Norbanakoak + entitateak**

- + **MUSIKA ZUZENEAN**  
*A Tuti Plain taldearen eskutik*
- + **GAZTAINA ERREAK**

Antolatzailea:

